

B euskararen BERRIPAPERA



U Z E I

20 urte euskalgintzan

UZEL, profesional-talde batek sortu zuen 1977. urtean, eta irabazi-asmorik gabeko elkarte da. 1986an Eusko Jaurlaritzak hizkuntz plangintzarako Babespeko Elkarte eta Onura Publikoko Erakunde izendatu zuen eta herri erakundeen (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta foru aldundiak) dirulaguntza jasotzen du hitzarmenen bidez. Erakunde pribatuen (Lan Kide Aurrezkoa, Kutxa, etab.) laguntza ere izaten du zenbait ekimen burutzeko.

Helburuak

Euskara goi-mailako irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan eta lan-munduan sartzeko zekartzan erronka berriei aurre egin ahal izateko sortu zen. Hori dela eta, etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen azpiegitura antolatzea izan du helburu nagusia UZELi. Hori abiapuntu, euskararen *corpusa* ikertu eta modernizatzeari eta lexiko eta terminologiaren garapenari heldu dio. Alor askotako lanak egin ditu: hiztegi terminologikoak, lexikologi lanak, testuliburuak, testu teknikoaren itzulpenak, etab. Gai eta alor bakoitzean, bertako lagunekin batera, kanpoko espezialisten eta adituen iritziak eta sentsibilitateak bildu eta bateratuz, lan-taldeak sortzea izan da UZELren nahietako bat.

Urteetako produkzioa

Lehenengo urteetan hiztegin-gintzak izan zuen pisua UZELren produkzioan. Ordurarte ia

landu gabe zeuden hainbat alor eta eremu jorratuz, hiztegi berezituak kaleratu eta irakaskuntza ertainerako eta unibertsitatearako testuliburuak prestatzeari ekin zion. Baina, papelean sakabanatuta zegoen informazio terminologiko hura guztia bildu eta erraz kontsul-

Lexikografia alorra ere jorratu du, Euskaltzaindiaren proiektuetan parte hartuz; partehartze hori bi proiektutan gauzatu zen da, nagusiki: EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa) eta Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko lan-taldearen prestaketa-lana. EEBS XX.



✕ *UZELko sortzaileei omenaldia egin zitzaien eginiko lana eskertzeko.*

tatzeko moduan jarri beharra zegoela eta, EUSKALTERM datu-bankua sortu zuen 1987an. Datu base terminologiko hori kanpotik ere kontsulta daiteke telematika bidez eta etengabe eguneratu eta osatzen da, eza-gutza-eremu berriak lantzen diren neurrian. Era askotako informazioa eskaintzen da bertan: fitxategi terminologikoa (75.000 fitxa eta 300.000 sarrera), itzulpen-fitxategia (55.000 fitxa eta 150.000 sarrera), kontsulta-fitxategia (10.000 fitxa) eta hustuketa-fitxategia.

mendeko euskal lexikoa biltzen duen lagina da eta lematizatutako 4 milioi hitz jasotzen dituen corpus informatizatua da. Mendeko honetan euskaraz argitaratu diren liburu, egunkari eta aldizkari guztiak daude bilduta, sailkatuta eta kontsultatzeko moduan EEBSrako sortu den datu-base bibliografikoa.

Itzulpengintzari hasiera-hasieratik heldu dio UZELk eta horren lekuko dira, besteak beste, EUSTAT, Eroski eta Unibertsitatearentzat eginiko lanak. Gaur ere, ez du alboratu izan eta horretan darrai.

S U M A R I O A

- 1 UZEL 20 urte euskalgintzan
- 2 Laburrak
Antonio Zavala Etxebarria
Kontuan hartzeko
- 3 Udal liburutegietan
gai-izenburuak euskaraz
Euskara justizia
administrazioan
Deialdia
- 4 Izen-abizenek
TELEFONICAn euskarazko
zerbitzuak
Lehen begiratuan

Euskara eta teknologia berriek duten harremanetan ez du atzera gelditu nahi izan eta bide horri ere ekin dio; hor daude Informatika Hiztegia, softwarearen euskaratzea eta EHUKo Informatika Fakultatearekin lankidetzan buruturiko XUXEN zuzentzaile/egiaztazaile ortografikoa eta bidean den EUSLEM lematizatzaile automatikoa.

UZELren urteurrena

Arestian aipatu dugunez 1977an sortu zen UZEL eta, beraz, aurtten 20. urteurrena betetzen du. Hori aitzakia hartuta Nazioarteko Terminologi Biltzarra antolatutako azaroaren 12, 13 eta 14rako HAEERekin batera. Terminologia eta itzulpengintzaren azken teorizazio eta joerak ezagutzeko aukera izango da bertan. Urteurrenaren ekitaldi nagusia urriaren 17an izan zuten Donostian eta bertan UZELko sortzaileei omenaldia egin zitzaien hasierako urte haietan eginiko lana eskertzeko.

LABURRAK

Euskal Idazleen Katalogoa

Hamazazpi euskal idazleren berri ematen duen katalogoa aurkeztu du Euskal Editoreen Elkarteak. Elkarteko hemeretzi argitaletxei, idazleen zerrenda egin zezaten eskatu zitzaizkien; hauetan sarrien agertzen diren euskal idazleak hautatu dira: P. Aristi, J. A. Arrieta, B. Atxaga, J. Azurmendi, M. Hernandez, A. Epaltza, J. M. Irigoien, J. M. Iturralde, K. Izagirre, E. Jimenez, I. Mujika Iraola, M. Landa, A. Lertxundi, J. M. Lekuona, R. Saizarbitoria, J. Sarrionandia eta J. L. Alvarez Enparantza "Txillardegia". Idazleak Euskal Herriatik kanpoan ezagutzera ematea, kanpoko argitaletxei euskal liburuen berri ematea eta euskal liburuak erdaretara itzultzeko bideak zabaltzea da, funtsean, Euskal Editoreen Elkartearen xedea. J. R. Zubimendik egin du, idazleekin lankidetzan, datu-bilketa eta fitxen osaketa. Testua euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez dago. Elkarteko argitaletxei buruzko fitxa bana eta, euskararen eta euskal literaturaren berri ematen duten bi testu ere ageri dira katalogoan. Urrian 15etik 20ra Frankfurtan egindako Nazioarteko Liburu Azokan aurkeztu zen katalogoa.



Euskera euskarri informatikoan

Euskaltzaindia euskarri informatikoan jartzen ari da aldizkaria eta informazio-organo nagusia duen *Euskera* agerkaria. 1919an sortu zen Euskaltzaindiaren lan eta agirien eta bertako gora-beheren berri emateko. 1919 eta 1978 bitartean kaleratutako ale guztiak biltzen dituen CD-ROMa prestatzen ari da. Ale guztiok, dauden-daudenean, bilduko dira, inongo aldaketarik gabe; baina euskarri informatikoak eskainitako aukerez baliatuz, beste era bateko antolaketa ere egingo da: gaika, egileka eta tomoka bilaketak egin ahal izango dira. Jende askok hartu du parte lan honetan eta Endrike Knörrek egin du guztiaren gainbegiraketa. *Aurten Bai Fundazioaren* laguntzaz kaleratuko da eta abenduan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan emango da ezagutzera.

Antonio Zavala
Etxebarria

Antonio Zavala idazle eta ikertzaile gipuzkoarra Tolosan jaio zen, 1928an. Jesusen Lagundikoa, Loiolan eta Urduñan egin zituen ikasketak eta Oñan eta Xabierren sakondu. Bertso eta bertsolariak eta herri-literaturan klasikoak diren obrak argitaratzen dituen *Auspoa* bilduma sortu zuen 1961ean; Pepe Artolaren *Sagardoaren Graziya* bertso-bilduma izan zen lehena eta geroztik berrehun obratik gora argitaratu ditu. Bilduma honetan bertsolariez eta bertsolaritzaz idatzitako lanak argitaratzen dira, batik bat; besteak beste, Txirrita, Pello Errota, Xenpelar, Udarregi, Mattin, Uztapide,

Xalbador eta Fernando Amezketarraren bizitza eta bertsoei buruzko lan monografikoak argitaratu dira. Bertsolaritzaren aztarnak herriz herri, auzoz auzo eta baserri baserri biltzen eta bertso-paperak eta gogoan gordetako bertsoak, doinuak eta pasadizoak biltzen ere lan handia egin du. Idazle klasikoan lanak (Beobide, Kardaberaz, Mogel), antzerki-lanak (Larzábal, Soroa) eta herri-kontakizunak (Salaberria, Mikela Elizegi, Patxi Lazkano) ere bildu ditu *Auspoa* sailean. Bilduma honetan eginiko lanaz gain, aipagarriak dira 1964an idatzirik



Bosquejo e historia del bersolarismo, 1978an idatzirik *Indalecio Bizcarrondo "Bilintx" (1831-1876)* eta 1996an argitaratutako *Auspoaren Auspoa* idazlan-bilduma. 1964. urteaz geroztik euskaltzain oso da. Urteetan zehar eginiko lanagatik omenaldia egin zion Labayru Ikastegiak joan den uztailean Derioko 28. Ikastaroen amaiera-ekitaldian.

KONTUAN HARTZEKO

VIII. Gerriko Ikerlan Sariketa

VIII. Gerriko ikerlan-sariketa antolatu dute Goiherriko Euskal Eskola elkarteak, Maizpide euskaltegiak eta Lazkaoko udalak. Lehiaketan edozeinek har dezake parte, baina Goiherri eskualdeari dagokion zientzi alorreko edozein gairi buruzko lana behar du izan. Euskarazko, eta ez euskarara itzultitako, ikerlan originalak baino ez dira onartuko. Ikerlanak



aurkezteko epea 1998ko martxoaren 18an itxiko da. Behin betiko erabakia 1998ko maiatzaren azken ostiralean emango da eta sari-banaketa ekainaren 2an egingo da Lazkaoko Udaletxean. Bi sari emango dira: 500.000 pta. eta ikur artistikoa lehen sariarentzat eta 300.000 pta. eta ikur artistikoa bigarrenarentzat.

★ **Ahoz aho, belaez belaeu ... hil honetan non?**

**Azaroaren 17tik 30era Arrigorriagan
Abenduaren 1etik 14ra Donostian**

Udal liburutegietan gai-izenburuak euskaraz

Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu du Bermeo eta Otxandioko udalekin bibliografietako gai-izenburuen zerrenda euskaraz jarri ahal izateko. Zerrenda hauek baliabide tekniko garrantzitsua izango dira liburutegietan informazioa topatu eta dokumentuetara jotzeko; euskararen normalizazio-prozesurako ere, bestalde, mesedegarri izango da lan hau. Euskal Autonomi Erkidegoko liburutegi-sarean dauden liburutegi guztiek izango dute zerrenda hauetarako sarbidea. Orain arte emandako urratsak, UZEIK eta Labayruk eginiko itzulpen-lanak esaterako, kontuan hartu dira. Nolanahi ere, hitzarmen honen helburua, ez da erdaretatik hartutako zerrendak besterik gabe

itzultzea, Euskal Herriaren eta euskararen ikuspegitik zerrenda egokiak sortzea, baizik. Hiru hilabetetan, urriaren 1etik abenduaren 31 bitartean, burutu nahi da lan hau, eta, horretarako, lan-talde bat sortu da hiru kidez



Bibliografietako gai-izenburuak euskaraz jartzeko hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzak.

osatua: Bermeoko eta Otxandioko udal-liburutegietako arduradunak eta Eusko Jaurlaritzako aditu bat. Hauekin batera beste zenbait lagun ere arituko da lanean.

DEIALDIA

Calidoscopio programa

Calidoscopio programarako deialdia egin du aurten ere Europako Batzordeak. Hiru urterako aurreikusitako programa hau: 1996an hasi zen eta, aldatzen ez bada behintzat, 1998koa izango da azkena.

Programa honen helburu orokorra Europako lurraldeen artean kultura arloko eta arte zein kultura sorkuntzako lankidetzak egitasmoak sustatzea eta herrietako kultura desberdinak ezagutzera ematea da. Proiektuek Europa mailakoak izan behar dute, eta lankidetzan burutzekoak, gutxienez Europako Batasuneko hiru estatutako ordezkariak parte hartuz.

Proiektuak hautatzerakoan, honako irizpideak hartuko dira kontuan: kalitate artistikoa zein kulturala, sormen artistikoa bultzatzeko duen erakargarritasuna, kultur elkartrukaketa bultzatzea, Europako Batasunarentzat balio gehigarria izatea, lankidetzak iraunkorra ezartzea parte hartzen duten herrialdeen artean, izaera berritzailea izatea, kulturarako ateak zabaltzea, eragin sozioekonomiko handia izatea eta proiektuaren ebaluazioa erraztea. Europako Batzordean eskabideak aurkezteko azken eguna 1997ko abenduaren 1a da.

Euskara justizia administrazioan

Zuzenbide alorrean eta justizia administrazioan orokorrean euskararen erabileraren normalizazioa lortzeko bidean, orain arte hainbat ekimen jarri dira martxan; hala ere, egiten ari diren ahalegin horiei etekina ateratzeko, beharrezkoa ikusten da ekimen horiek guztiak ondo planifikatzea eta koordinatzea. Hori dela eta, justizia administrazioan euskararen egoerari buruzko hausnarketak egiteko, hainbat erakundetako adituak bilduko dira Gasteizen, abenduaren 18 eta 19an. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila eta hainbat erakunde eta lagunek honetarako propio osatutako

batzordea dira jardunaldion antolatzaileak.

Jardunaldien abiapuntua euskararen bilakaera soziolinguistikokoaren azterketa izango da; egungo euskararen egoeratik hasi, eta, justizia administrazioaren esparruan euskarak duen tokia aztertzeari ekingo zaio. Besteak beste, Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak euskarari loturik dituen ekimenak aurkeztuko ditu erakunde honetako ordezkariak.

Bigarren arlo batean, marko konstituzional eta legala aztertuko dute, abokatu, fiskal, epaile eta idazkari judizialen elkarreterako ordezkariak. Mahai gainean jarriko dira esparru honetan egon diren ekarpenak, aburuak eta bestelako gogoetak.

Bestetik, Estatuko gainontzeko elkarreteran justizia administrazioaren baitako hizkuntza normalkuntzaren prozesua aztergai izango da. Horretarako, Valentzia, Katalunia eta Galiziako gobernuetako ordezkariak Gasteizko jardunaldietan izango dira.

Euskara juridikoa, ikasketa prozesua eta formazioaren inguruko gaiak buruzko eztabaidarako ere lekua izango da, gai horien inguruan diharduten hainbat esparrutako ordezkarien eskutik. Jardunaldiei amaiera emateko gaur egungo arazo nagusiak aztertuko dira, eta aurre egiteko eman beharreko urratsak eta proposamenak bilduko dira.



Aingeru Epaltza Ruiz de Alda

Aingeru Epaltza idazle eta kazetari nafarra da 1997ko euskarazko Euskadi Literatur Sariaren irabazlea. *Tigre Ehizan* izeneko lanari esker jaso du saria. Kontakizun labur baina trinkoa, 1936ko Espainiako Gerran erbesteratutako egoera du ardatz kontakizun honek, Bilbotik Lapurdira ihes egindako familia baten istorioa kontatzen baitu. Irakurketa bat baino gehiagorako aukera ematen du; alde batetik, abentura hutsa izan daiteke, baina bestetik, maila sinbolikoa hartzen du nongotasunaren arazoa tartekatzen den neurrian.

Liburu honetan euskalkien erabilerak duen garrantzia eta zuzentasuna ere erabakiorrak izan dira epaimahaikoentzat, saria esleitzerakoan. Aingeru Epaltza Iruñean jaio zen 1960an. Kazetaritzako ikasketak egin zituen, eta gaur egun Nafarroako Gobernuan lan egiten du itzulzaile gisa. 1984an idatzi zuen *Mugetan irri* bere lehen lana; geroztik, hainbat lan egin ditu, besteak beste, 1991n Iruñeko Xalbador Literatur Saria jaso zuen *Ur uherrak* nobela. Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria da.

José Morales Belda

José Morales idazleak jaso du 1997ko itzulpenarako Euskadi Literatur Saria, errusieratik euskaratutako Mikhail Jurievitz Lermontov-en *Gure garaiko heroia* lanagatik. Literatura Unibertsala bildumako lanetako bat da itzulpen hau. Bilbon jaio zen 1960an, gaztelaniaz baino hitz egiten ez zuen familia batean. Kazetaritza ikasi zuen Madrilan eta han hasi zen euskara ikasten. Ikasketaz kazetaria den arren, itzulpengintza du ogibide.

Lau urte daramatza itzulpenak egiten; literatur lanez gain, testuliburuak eta dibulgazio-lanak ere itzuli ditu. Errusiako literaturan espezialista da. Orain hamar urte hasi zen errusiera ikasten, Euskadi eta SESB-en artean antolatutako ikastaroetan; Hizkuntza Eskola Ofizialera pasa eta han sakondu zituen. *Gorkiren Ama* izan zen lehen itzulitako lana eta ondorengoak dira Euskadi Saria jaso duen *Gure garaiko heroia* eta Pushkinen *Saltan*



erregea eta *Kapitainaren alaba*. Egun, Nikolai Gogol-en *Arima hilak* euskaratzen ari da.

TELEFONICAn euskarazko zerbitzuak

TELEFONICAn orain arte euskaraz eskaintzen zituen zerbitzuez gain (telefono-aurkibideak, propaganda, zerbitzu orokorrak), 1997az gero bi aukera berri ematen ditu euskara ere erabili ahal izateko. Batetik, etxean faktura euskara hutsez jasotzeko aukera eskaintzen du. Bestetik, erantzungailu-zerbitzua jarri du martxan eta erabiltzaileak nahi duen hizkuntza hauta dezake bere mezuak jartzeko. Erantzungailu-zerbitzu honek hainbat aukera ematen ditu: kanpoan zarenean mezuak jaso, elkarrizketa batean ari zarenean bigarren dei bat hartu edo mezua jaso, norberak nahi duen hizkuntza hautatu (euskara barne), ongi etorriko mezua pertsonalizatu, eguneko mezuak etxean jasotzeko abisu-ordua ipini edo aldatu, etab. Erantzungailu-zerbitzuak gaztelaniaz ditu menuko esaldiak, baina euskaraz ere jar daitezke, oso modu errazean. Deitu Merkatal Atentzio Zerbitzuko 004 telefonora eta argituko dizute zer egin behar den. Deia dohain da.

Lehen begiratuan



Bi hiztegi argitaratu dira urrian: Elhuyarrek prestatu eta Klaudio Harluxet Fundazioarekin batera argitaratutako *Ikaslearen hiztegia* eta Klaudio Harluxet Fundazioaren *Nire lehen hiztegia*. Lexiko arrunteko euskarazko definizioak ematen dira eta hauen argigarri ilustrazioak daude. *Ikaslearen hiztegiak* gazteak hartu ditu kontuan eta gramatika labur bat du eranskin modura. *Nire lehen hiztegia*, berriz, haurrentzat da eta gramatika eta ilustrazioez osatutako koloretako eranskina du. Euskara ikasten ari diren maila desberdinetako helduentzat ere baliagarri dira.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

Lege-gordailua: VI-572-1992

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

© Hizkuntza Politikarako Sailordetza